# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**4450**

237/2010 DEKRETUA, irailaren 14koa, gasa kanalizazio bidez banatzen duten enpresek erabiltzaileei egiten dizkieten zerbitzuen kostuak arautzen dituen dekretua aldatzeko dena.

Uztailaren 15eko 135/2008 Dekretuaren xedea zera da, hornitzeko eskakizunak betetzeko behar diren zerbitzuengatik gasa kanalizatuta banatzen duten eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten konpainiek beren erabiltzaileen eskutik jaso ditzaketen gehieneko zenbatekoak arautzea, eta kontzeptu horien artean biltzen dira honako hauek: alta-, engantxe- eta egiaztatze-eskubideak, deskonexio- eta berkonexio-eskubideak, baita gasa kanalizatuta jasotzeko instalazioetan egindako aldizkako ikuskapenen ondoriozkoak ere. Era berean, aldizkako ikuskapenei dagokienez, PGL biltegiratzeko depositu finkoetatik eraikin edo higiezinen gune bereko erabiltzaile bat baino gehiagorentzako instalazioetan ere aplika daiteke.

Zerbitzuan dauden gas-instalazioen ikuskapena eta berrikuspena arautzen zuen 28/2002 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 24ko 70/2009 Dekretuaren bitartez, konpainia banatzailearen kargura dauden aldizkako ikuskapenen bidezko kontrol-sistema, era berean, aplikagarria egiten da botiletan ontziratutako gas-instalazioentzako eta PGL biltegiratzeko depositu finkoetatik erabiltzaile bakar batentzako instalazioentzat.

Hortaz, xedapen honen helburua da gasa kanalizatuta banatzen duten enpresek erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuen kostuak arautzen dituen uztailaren 15eko 135/2008 Dekretua aldatzea, horren aplikazio-eremua botiletan ontziratutako gasa jasotzen duten instalazioen eta depositu finkoetatik erabiltzaile bakar batentzako instalazioen aldizkako ikuskapenetara zabaltzeko.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak dekretu hau landu du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22.era bitartean xedaturikoa kontuan hartuta, baita gainerako nahitaezko txostenak ere.

Dekretu hau Kontsumoko Aholku Batzordearen azterketapean eta Kontsumitzaileen Elkartearen entzunaldipean jarri da, kontsumitzaile eta erabiltzaile-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO**

**4450**

DECRETO 237/2010, de 14 de septiembre, de modificación del Decreto por el que se regulan los costes de los servicios que las empresas distribuidoras de gas por canalización prestan a los usuarios.

El Decreto 135/2008, de 15 de julio de 2008, tiene por objeto regular la cantidades máximas que las compañías distribuidoras de gas canalizado, que desarrollan su actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, pueden percibir de sus usuarios por los servicios necesarios para atender los requerimientos de suministro, incluyéndose entre dichos conceptos: los derechos de alta, de enganche y verificación, desconexión y reconexión, así como los derivados de las inspecciones periódicas efectuadas en las instalaciones receptoras de gas canalizado. También resulta aplicable, en lo referido a las inspecciones periódicas, a las instalaciones suministradas desde depósitos fijos de almacenamiento de GLP que suministren a varios usuarios de un mismo edificio o complejo inmobiliario.

Mediante el Decreto 70/2009, de 24 de marzo de 2009, de segunda modificación del Decreto 28/2002 que regulaba la inspección y revisión de las instalaciones de gas en servicio, el sistema de control mediante inspecciones periódicas a cargo de la compañía distribuidora se hace también aplicable a las instalaciones de gas envasado en botellas y a las instalaciones suministradas desde depósitos fijos de almacenamiento de GLP que suministren a un único usuario.

Por tanto, el objeto de la presente disposición es la modificación el Decreto 135/2008, de 15 de julio de 2008, por el que se regulan los costes de los servicios que las empresas distribuidoras de gas por canalización prestan a los usuarios, a fin de que extienda su ámbito de aplicación a la inspección periódica de las instalaciones receptoras de gas envasado en botella y de las instalaciones suministradas desde depósitos fijos que den servicio a un solo usuario.

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo ha elaborado el presente Decreto teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como el resto de informes preceptivos correspondientes.

El presente Decreto ha sido sometido a la Comisión Consultiva de Consumo y a la audiencia de las Asociaciones de Consumidores, en cumplimien-

en eta enpresa banatzaileen eta gainerako eraginpeko entitate eta erakundeen defentsarako uztailaren 19ko 16/1984 Lege Orokorraren 22.2.d) artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Horri jarraiki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin adostuta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko irailaren 14ko bilkuran aldez aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehen artikulua.***– Uztailaren 15eko 135/2008 Dekretuaren titulua aldatu da, eta honela idatzita geratuko da:

«135/2008 Dekretua, uztailaren 15ekoa, gasa banatu eta hornitzen duten enpresek erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuen kostuak arautzen dituena».

***Bigarren artikulua.***– Uztailaren 15eko 135/2008 Dekretuaren 1. artikuluko 1. puntuaren bigarren paragrafoa aldatu da, eta honela idatzita geratuko da:

«Era berean, eta aldizkako ikuskapenei dagokienez, Dekretu hau PGL biltegiratzeko depositu finkoetatik hornitutako instalazioetan edo botiletatik hornitutako instalazioetan enpresa hornitzaileek egin behar dituzten ikuskapenei ere aplikatuko zaie».

***Hirugarren artikulua.***– Uztailaren 15eko 135/2008 Dekretuaren 5. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da, eta honela idatzita geratuko da:

«5. artikulua.– Aldizkako ikuskapenengatiko eskubideak.

Gasa kanalizazio bidez banatzen duen enpresari instalazio hartzaileen titularrak ordaindu beharreko diru-kopuruak dira aldizkako ikuskapenengatiko eskubideak, baita PGL biltegiratzeko depositu finkoetatik edo botiletatik hornitzen dutenei ere, enpresa horiek lau urtean behin beren erabiltzaileen instalazioetan egin behar dituzten aldizkako ikuskapenengatik».

***Laugarren artikulua.***– 135/2008 Dekretuaren II. eranskina aldatu da, eta biltegiratzeko depositu finkoetatik PGL erabiltzaile bakar batentzako instalazioetan nahiz botiletatik hornitutako instalazioetan egindako aldizkako ikuskapenengatiko eskubideen diru-kopuruak ere bilduko ditu.

to de lo establecido en el artículo 22.2.d) de la Ley 16/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y de las empresas distribuidoras y demás entidades y organismos afectados.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 14 de septiembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el título del Decreto 135/2008, de 15 de julio, que quedará redactado de la siguiente manera:

«Decreto 135/2008, de 15 de julio, por el que se regulan los costes de los servicios que las empresas distribuidoras y suministradoras de gas prestan a los usuarios».

***Artículo segundo.***– Se modifica el segundo párrafo del punto 1.º del artículo 1 del Decreto 135/2008, de 15 de julio, que quedará redactado de la siguiente manera:

«Asimismo y por lo que se refiere a las inspecciones periódicas, el presente Decreto será igualmente de aplicación a aquellas que están obligados a realizar las empresas suministradores en las instalaciones alimentadas desde depósitos fijos de almacenamiento de GLP o en las instalaciones alimentadas desde botellas».

***Artículo tercero.***– Se da nueva redacción al párrafo 1.º del artículo 5 del Decreto 135/2008, de 15 de julio, que quedará redactado de la siguiente manera:

«Artículo 5.– Derechos por Inspecciones Periódicas.

Los derechos por las inspecciones periódicas, son las percepciones económicas que debe abonar el titular de las instalaciones receptoras a la empresa distribuidora de gas por canalización, así como a las empresas que suministren desde depósitos fijos de almacenamiento de GLP o desde botellas, por las inspecciones periódicas que dichas empresas están obligadas a realizar, cada cuatro años, en las instalaciones de sus usuarios».

***Artículo cuarto.***– Se modifica el anexo II del Decreto 135/2008, que pasará a recoger también los importes de los derechos por las Inspecciones periódicas realizadas tanto en instalaciones de GLP suministradas desde depósitos fijos de almacenamiento que den servicio a un solo usuario, como en instalaciones suministradas por botellas.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erabiltzaile bakar batentzako depositudun PGL instalazioetan eta botiletan hornitutako PGL instalazioetan aldizkako ikuskapenak egiteko II. eranskinean ezarritako eskubideen diru-kopuruak 2010. urtean aplika daitezkeenak dira. I. eta II. eranskinetan aldez aurretik jasotako gainerako diru-kopuruak 2008. urtekoak dira; hortaz, kopuru horiek eguneratzeko, uztailaren 15eko 135/2008 Dekretuaren 6.3 artikuluari jarraitu beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko irailaren 14an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los importes de los derechos establecidos en el anexo II para las inspecciones periódicas en Instalaciones de GLP con depósitos que sirvan a un único usuario y en Instalaciones de GLP suministrado en botellas, son los aplicables en el año 2010. El resto de importes previamente recogidos en los anexos I y II, corresponden al año 2008; por tanto, para su actualización se deberá atender al artículo 6.3 del Decreto 135/2008, de 15 de julio.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

II. ERANSKINA

1.– PGL instalazioen alta, engantxe, egiaztatze, deskonexio eta berkonexio eskubideak.

| | Euroak |
|---|---|
| Alta | 78,32 |
| Engantxea | 69,27 |
| Deskonexioa eta berkonexioa | 138,55 |
| Egiaztatzea | 47,80 |

2.– Aldizkako ikuskapenen eskubideak.

Erabiltzaile bat baino gehiagorentzako PGL kanalizatuko instalazioak edo depositudun instalazioak:

| | Euroak |
|---|---|
| Instalazio hartzaile komunitarioari konektatu gabeko banakako instalazioaren aldizkako ikuskapena | 46,85 |
| Instalazio hartzaile komunitarioari konektaturiko banakako instalazioaren aldizkako ikuskapena | 52,70 |

Erabiltzaile bakar batentzako depositudun PGL instalazioak *

| Aldizkako ikuskapena (euroak) | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Depositauak (m3) | Etxekoa | Jatetxea | Hotela/Eskola | Industria |
| ≤ 3 | 132 | 175 | 199 | 459 |
| >3tik 5era bitarte | | 204 | 228 | 507 |
| >5etik 13ra bitarte | | | 300 | 648 |
| >13tik 35era bitarte | | | | 695 |
| >35 | | | | 744 |

Botiletan hornitutako PGL instalazioak *

| | Euroak |
|---|---|
| Etxeko botiletara konektaturiko banakako instalazioaren aldizkako ikuskapena (12,5 kg) | 60,35 |
| Industria botiletara konektaturiko banakako instalazioaren aldizkako ikuskapena (12,5 kg baino gehiago) | 69,25 |

* 2010. urteko diru-kopuruak. I. eta II. eranskinetan jasotako gainerako diru-kopuruak 2008. urtekoak dira, eta, beraz, 6.3 artikuluari jarraitu beharko zaio horiek eguneratzeko.

*ANEXO II*

*1.– Derechos de alta, enganche, verificación, desconexión y reconexión de instalaciones de GLP.*

| | *Euros* |
|---|---|
| *Alta* | *78,32* |
| *Enganche* | *69,27* |
| *Desconexión y reconexión* | *138,55* |
| *Verificación* | *47,80* |

*2.– Derechos de inspecciones periódicas.*

*Instalaciones de GLP canalizado o con depósitos que sirvan a más de un usuario:*

| | *Euros* |
|---|---|
| *Inspección periódica de instalación individual no conectada a instalación receptora comunitaria* | *46,85* |
| *Inspección periódica de instalación individual conectada a una instalación receptora comunitaria* | *52,70* |

*Instalaciones de GLP con depósitos que sirvan a un único usuario **

| *Inspección periódica (euros)* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Depósitos (m3)* | *Doméstica* | *Restaurante* | *Hotel/Colegio* | *Industria* |
| *≤ 3* | *132* | *175* | *199* | *459* |
| *>3 hasta 5* | | *204* | *228* | *507* |
| *>5 hasta 13* | | | *300* | *648* |
| *>13 hasta 35* | | | | *695* |
| *>35* | | | | *744* |

*Instalaciones de GLP suministrado en botellas **

| | *Euros* |
|---|---|
| *Inspección periódica de instalación individual conectada a botellas domésticas (12,5 kg)* | *60,35* |
| *Inspección periódica de instalación individual conectada a botellas industriales (más de 12,5 kg)* | *69,25* |

** Importes correspondientes al año 2010. El resto de importes recogidos en los anexos I y II, corresponden al año 2008, por tanto se deberá atender al artículo 6.3 para su actualización.*